



**Herritartasun Eskola**  
 Unibertsitateen Etorbidea, 24  
 48007 Bilbao  
 ☎ 944 139 075  
 📠 Faxa: 944 467 909  
 ✉ deustobide@deusto.es  
 🌐 www.deustobide.deusto.es



Escuela de Ciudadanía ●●●●●  
 ●●●●● Herritartasun Eskola

Babeslea:



Obra Social "la Caixa"

# Gabriel Arestiren Ondarea

## Zikloa Deustuko Unibertsitatean



## Gabriel Arestiren Ondarea Zikloa Deustuko Unibertsitatean

50 urte bete berri dira Gabriel Arestiren **Harri eta Herri** poema liburua argitaratu zenetik, eta 2015eko ekainean 40 urte beteko dira bilbotar poeta hil zenetik. Une ezin egokiagoa Gabriel Arestiren bizitza, figura eta lana unibertsitatean ekarri eta haren ondarearen inguruko ziklo bat proposatzeko.

DeustoBide Herritartasun Eskolaren markoan unibertsitateko ohiko formatoak gainditu eta jarduera osagarriz osatutako ziklo berritzaile eta diziplinarteko bat antolatzeke aukera zabaldu zaigu Gabriel Aresti Kultura elkartearekin elkarlanean: saio bi Deustuko Unibertsitatean eta ibilaldi turistikoa Bilbon zehar, Bilboko Kafe Antzokian hasita. Gabriel Arestiren Ondarea Zikloa DeustoForum markoaren baitako hitzaldiarekin amaituko da.

### Gabriel Arestiren lana eta bizitza: hitzaldi musikatua

**Irakasleak: Xabier Monasterio idazlea eta Gabriel Aresti Euskaltegiko irakaslea eta Rafa Rueda abeslari eta gitarrajolea**

Gabriel Arestiren bizitza haren obraren bidez, eta hitzak musikak lagundurik.

**Maiatzak 25**, astelehena 17:30-20:30.  
Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

### Nazioaren alegoria Gabriel Arestiren poesian: mintegia

**Irakaslea: Josu Bijesca Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea literatura, linguistika eta kultura ikasketetan**

Gabriel Arestiren olerkietan nazioak hartu dituen aldaerak eta poetaren Euskal Herria lerro artean irakurtzeko saioa.

**Maiatzak 26**, asteartea 17:30-20:30.  
Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

### Arestiren Bilbo: ibilbide turistikoa

**Gidariak: Iraia Biteri eta Beñat Aiarza Gabriel Aresti Euskaltegiko irakasleak**

Poetaren sorlekua, haurtzarora, erreferentzia intelektualak eta lan aipagarrienak ezagutzeko parada.

**Ekainak 3**, asteazkena 17:30 - 20:00.  
Bilbo, Kafe Antzokian hasita.

### Harri eta herri lanaren 50. urteurreneko edizio berria

Material lagungarri bezala **ikasle bakoitzari emango zaio Harri eta Herri** poesia liburua berrogeita hamargarren urteurreneko edizioa.

Bi liburuk osatzen dute argitalpen berria: Arestiren liburua, argitaratu zen bezala batetik eta 50. Artikulu bilduma izeneko liburua bestetik zenbait euskaltzainek eta egilek idatziriko artikuluak biltzen dituen.



### Matrikula eta prezioa

**Ziklo osoaren prezioa:** 50 € (\*)

**Matrikula epea:** 2015eko maiatzaren 6tik 20ra.

Izena emateko, ondoan doan inprimakia bete eta DeustoBide - Herritartasun Eskolara bidali behar da (postaz, faxez, posta elektronikoz bidez edo bertara etorrita, ikus eskuorriaren atzekaldean).

Horrekin batera bankuko ordainagiria ere ekarri beharko da, izena emateko epearen barruan.

Ordainagirian ikaslearen izena eta DeustoBide (kz6444) agertu beharko dira. Dirua kontu zenbaki honetan sartu beharko da:

**la Caixa - Erakundea 2100 - Bulegoa 2278 - KD: 42. Kontu Zenbakia: 0200179141**

### Matrikula deuseztatzea

Bidezko arrazoiren bategatik ikasleak ikastarora etorri ezin izango balu, eskabide baten bidez jakinarazi beharko dio DeustoBideko Zuzendaritzari, ikastaroa hasi baino 7 egun lehenago. Hala eginez gero, ikastaroaren prezioaren % 90 itzuliko zaio.

Epe hori igarotakoan ez da diru kopuru hori itzuliko.

Toki kopurua mugatua da (50 lagun gehienez). Lekuak matrikulak jaso ahala esleituko dira.

Ziurtagiri akademikoa emango zaio hala eskatzen duenari.

(\*) Ikastaro honek "la Caixa"ren Gizarte Ekintzaren diru-laguntza du.

**Nire Arestiar lauburuak: DeustoForum hitzaldia (zikloaren itxiera saioa, irekita mundu guztiarentzat)**

**Hizlaria: Miren Agur Meabe idazlea.**

Zikloaren itxiera saio honetan Miren Agur Meabe idazle Lekeitiarrak Arestiren arrastoa aletuko du lehenengo pertsona egindako irakurketarekin. Hitzaldiak Harri eta Herriren 50. urteurrenerako idatzitako idazkiaren zabalkuntza proposatuko du, Gabriel Arestiren Ondarea Zikloa itzeko.

**Ekainak 4**, osteguna 19:00.  
Bilbo, Deustuko Unibertsitatea. Irekia mundu guztiarentzat.

## Gabriel Arestiren Ondarea Zikloa Deustuko Unibertsitatean

### Izena emateko orria

Izen-abizenak

Helbidea

Herria

P. K.

Telefonoa

E-posta

